

H_{LH4}

2020/2021

Zuzenketarako Koaderno

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

***Euskal
Hezkuntza
Gaitasuna***

LHko 4. maila



1. zatia - Irakurmena

LEHENENGO TESTUA

MATTIN MOTTELA

Mattin ez zen bihotz gaiztoko gizona. Lapurretarako zuen zaletasun hark, ordea, jendearen ahotan jartzen zuen askotan. Hori dela eta, herritarrek beldur handia zioten.

Asko bezala, bi emakume bizi ziren elkarrekin etxe batean: ama-alabak.

Gutxitan ikusten zuten haiek dirua eta, neke handiz, txerri handi bat hazi eta gizendu zuten, etorkizunerako pozgarri.

Txerria saltzeko garaia etorri zenean, Irurtzungo feriara eraman zuten. Feria ona zenez, goizeko hamarretarako saldua zuten zerrama. Ontzako urrea eman zien eskura botikariak, etxean hiltzeko erosi zien zerramaren truke. Basoko txoriak baino alaiago itzuli ziren etxera.

Txerria edo zerrama



Ontzako urrea



- Ama, non sartuko dugu ontzako urrea Mattin Mottelak ez hartzeko?
 - Harlauza asko dago sukaldean. Sar ezazu sukaldean, lurpean, eta ez du inork lapurtuko.
- Mattin Mottelak bi emakumeak ferian txerria saltzen ikusi zituen eta bere kontra zer edo zer esaten ari zirela jabetu zen. Hori dela eta, estualdi bat eman nahi izan zien.
- Gauean, biak lo zeudenean, etxean sartu eta, amaren ahotsa imitatuz, alabari belarrira hitz egin zion Mattin Mottelak:
- Gorde al duzu urrezko ontza nik esandako lekuan?

Eta alabak:

- Bai ama, ikusi duzu ba nola sartu dudan sukaldeko harlauza azpian, piper-pote batean.

Mattin Mottelak harlauza mugitu eta piper-potean aurkitu zuen ontza. Dirua sakelean sartu eta piper-potea bere tokian utzi zuen.

Biharamunean, jaiki orduko, diruak bere tokian segitzen ote zuen ikustera joan ziren ama-alabak. Hura ustekabea! Dirua falta!

– Gure ontza, gure dirua lapurtu digute! –zioten oihuka eta negar zotinka.

Mattinek guztia entzun, emakumeen etxera hurbildu eta atea jo zuen:

– Zer duzue emakumeak?

– Ontza lapurtu digute, txerri bat saldu ondoren irabazitako dirua! Orain ez sosik ez txerririk! –erantzun zion amak, negar batean.

– Hona hemen zuen ontza, Mattin Mottela ez da zuek esaten zenuten bezain gaiztoa!

Ama-alabak aho zabalik gelditu ziren, hitzik gabe. Mattin Mottelak dirua eman eta alde egin zuen.

Kontent eta lasai gelditu ziren ama-alabak. Eta horrela sinetsi zuten, ez zela bihotz txarreko pertsona Mattin Mottela, alegia.

J.M. Satrustegik jasotako ipuin herrikoia.

1. Zergatik zioten beldur handia herritarrek Mattini?

- A. Bihotz gaiztoko gizona zelako.
- B. Jendearen ahotan egoten zelako askotan.
- C. **Lapurretarako zaletasunak famatu zuelako.**
- D. Bere lapurretak oso ospetsuak zirelako.

1. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Narrazioa, jarraitua, ipuina.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

2. Zergatik da txerria ama-alaben etorkizunerako pozgarri?

- A. Neke handiz hazi eta gizendu zutelako.
- B. **Saldutakoan behar zuten dirua lortu zutelako.**
- C. Etxean ama-alabak bakarrik bizi zirelako.
- D. Zorrak ordaindu behar zituztelako.

2. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Narrazioa, jarraitua, ipuina.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

3. Zerrama saltzea lortu zuten:

- A. **Irurtzungo ferian.**
- B. Goizeko hamarretan puntu-puntuan.
- C. Feriarik onenean.
- D. Garai on batean.

3. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Narrazioa, jarraitua, ipuina.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

4. Nork kontatzen du istorioa?

- A. Mattin Mottelak.
- B. Amak.
- C. **Narratzaile batek.**
- D. Alabak.

4. galderaren analisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Husnartzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

5. Zertarako erosi zien zerrama botikariak?

- A. Bere etxean gordetzeko.
- B. Ama-alabak etxera alai itzultzeko.
- C. **Etxean hiltzeko.**
- D. Mattin Mottelak ez lapurtzeko.

5. galderaren analisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Oso erraza
Galdera mota	Itxia

6. Zer adierazi nahi du “basoko txoriak baino alaiago itzuli ziren etxera” esaldiak?

- A. Basoan zehar bueltatu zirela txoriak entzuten.
- B. **Oso pozik zeudela salmentarekin.**
- C. Basoko txoriak pozik zeudela.
- D. Basoko txoriak triste zeudela.

6. galderaren analisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

7. Testuan esaten da Mattin Mottelak estualdi bat eman nahi izan ziela. Zergatik egin zuen Mattin Mottelak hori?

- A. Dirua beretzat lapurtu nahi zuelako.
- B. Ama-alabak mesfidatiak zirelako.
- C. Ferian txerria saltzen ikusi zituelako.
- D. Bere kontra zer edo zer esaten harrapatu zituelako.

7. galderaren analisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

8. Non gorde zuten urrezko ontza ama-alabek?

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>“Sukaldeko lurra eta harlauza (edo biak) eta piper-potea aipatu behar dituzte”.</i>

8. galderaren analisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Informazioa aurkitzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Irekia

9. Nola jakin zuen Mattin Mottelak non zegoen “ontzako urrea”?

- A. Amari lo zegoenean galdetuz.
- B. Ferian entzun zielako hizketan.
- C. Alabari lo zegoenean galdetuz.
- D. Ezkutatzen ikusi zituelako.

9. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Narrazioa, jarraitua, ipuina.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

10. Mattin Mottelak...

- A. piper-potea eraman zuen.
- B. harlauza jaso eta eraman egin zuen.
- C. harlauza eta piper-potea eraman zituen.
- D. dirua sakelean eraman zuen.

10. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Narrazioa, jarraitua, ipuina.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

11. Noiz jo zien atea Mattin Mottelak ama-alabei?

- A. Oihuka eta negar zotinka entzun ondoren.
- B. Biharamunean, jaiki orduko.
- C. Dirua bere tokian zegoen ikustera joan zirenean.
- D. Ustekabe handia hartu zutenean.

11. galderaren analisisia	
Testu tipoa	<i>Narrazioa, jarraitua, ipuina.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Informazioa aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

12. Mattinek ama-alabei “Zer duzue emakumeak?” galdetu zien...

- A. zer gertatzen zitzaien ez zekielako.
- B. handik igaro eta negarrez entzun zituelako.
- C. dirua falta zitzaieela bazekielako.
- D. oso larri zeudela iruditu zitzaiolako.

12. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

13. Nor da egilea?

- A. Ama eta alaba.
- B. Ezezaguna da. Ipuin herrikoia da.
- C. Mattin Mottela.
- D. J.M. Satrustegi.

13. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

14. Zergatik lapurtu zien ontzako urrea Mattin Mottelak?

- A. Mattin Mottela lapurra zelako.
- B. Mattin diru beharrean zegoelako.
- C. Askotan aspertuta egoten zelako.
- D. Ferian beraz gaizki esaka harrapatu zituelako.

14. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

15. Zein da Mattinen benetako asmoa ipuin honetan?

- A. Ama-alaben kontura barre egitea.
- B. Ontzako urrea lapurtzea.
- C. Pertsona gaiztoa dela adieraztea.
- D. Bihotz oneko pertsona dela argi uztea.

15. galderaren analisisa	
Testu tipoa	Narrazioa, jarraitua, ipuina.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehieneko puntuazioa	1
Zailtasun maila	Erraza
Galdera mota	Itxia

BIGARREN TESTUA

UREDERRAREN ITURBURUA Iturburuak / Ibaiak




KOKAPENA

Urederraren iturburua Lizarrako iparraldean dago eta Urbasa-Andia Natura Parkea mendigunearen azpian dabilen ura hantxe ateratzen da gainazalera.

IBILBIDEA

- **Bakedao** herriaren sarreran dagoen harrera-eremuan bidexka bat hasten da, 6,2 kilometroko luzera (joan-etorria) eta 90 metroko desnibela dituena. Eremu hartan ere aparkalekua eta turismo informazio-gunea daude.
- Baso-pista hartu eta langa bat igaro ondoren, bidea bitan banatzen da. Joaterakoan, ezkerreko bidea hartzea gomendatzen da, ibaitik hurbilago doana; eta bueltatzerakoan, ekialdeko bidea, goragotik doana. Ibilbidea ibaiaren norabidearen kontrakoa da eta iturburutik metro batzuetara bukatzen da.
- 2 ordu eta erdiko paseoa da baso trinko batean zehar, eta pagoak eta turkesa-koloreko putzu ugari daude. Putzuak lur azpiko ura harrietako pitzaduretatik ateratzen delako sortzen dira.



UREDERRAREN ITURBURUA BISITATU NAHI BADUZU:

- Urederraren iturburuko eremu natural babestura sartzeko, beti egin behar da erreserba aldezturik Internet bidez www.urederra.navarra.es
- Egunean 500 pertsona sar daitezke gehienez eta ezin izango da sarrerarik gabe sartu ingurugiroaren egoera hobetzeko.
- Bidearen azkeneko zatia segurtateagatik itxi da.
- Lurra nahiko irregularra denez, oinetako erosoak eramatea gomendatzen da eta, euria egiten badu, kapusaia.
- Bidexka ez da egokia mugimendu urria duten pertsonentzat ez eta haurrentzako aulkixentzat ere.

www.navarra.es webgunetik hartua (moldatua)

16. Non dago “Urederraren iturburua”?

- A. Lizarrako hegoaldean.
- B. Urbasa-Andia Natura Parkean.
- C. Mendikatean.
- D. Bakedano herrian.

16. galderaren analisisa	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

17. Non hasten da Urederraren iturburura joateko bidea?

- A. Akuiferoaren irteera naturalean.
- B. Bakedaon, sarreran.
- C. Bakedaon, erdigunean.
- D. Aparkalekuan.

17. galderaren analisisa	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Oso erraza</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

18. “Eremu hartan aparkalekua eta turismo informazio-gunea daude”. Non?

- A. Urederraren iturburuan.
- B. Urbasa-Andia Natura parkean.
- C. Harrera eremuan.
- D. Bakedaon.

18. galderaren analisisa	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

19. “Baso-pista hartu eta langa bat igaro ondoren”...

- A. eskuineko bidea hartzea gomendatzen da.
- B. bidea erdibitu egiten da.
- C. ibaitik urrunago doan bidea hartu behar da.
- D. bidea bukatzen da.

19. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

20. Ibilbideak...

- A. 3 kilometroko luzera du joateko.
- B. 5,2 kilometroko luzera du joan-etorrian.
- C. 80 metroko desnibela du.
- D. bi ordu eta erdiko iraupena du.

20. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

21. Azaldu nola sortzen diren putzuak?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>“Lur azpiko ura harrietako pitzaduretatik ateratzen delako / ateratzean”</i> edo antzeko azalpena.

21. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

22. Zer EZ dugu ikusiko txangoan?

- A. Aparkalekua eta informazio-gunea dituen harrera eremurik
- B. Ur-jauzirik eta turkesa koloreko putzurik.
- C. Bitan banatzen den baso-pistarik.
- D. **Pinuak eta haritzak dituen baso trinkorik.**

22. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

23. Zertarako mugatu dute Urederraren iturburura joan ahal diren bisitarien kopurua?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	<i>“Ingurugiroa babesteko”, “zaintzeko”, “ez hondatzeko”, “hobetzeko”.</i>

23. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

24. Zergatik itxi da Urederraren iturburuaren azkeneko zatia?

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Seguritateagatik” edo antzeko azalpena.

24. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Aurkitzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

25. Zure lagun bat gurpil-aulkian mugitzen da. Testuaren arabera, Urederraren iturburua berak bisitatzeko moduko leku aproposa da? Erantzun bai ala ez.

.....

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	“Ez”.

25. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Erraza</i>
Galdera mota	<i>Irekia</i>

26. Testu hau:

- A. Urederraren iturburaren gaineko kondaira da.
- B. Umeek eskolan ikasteko testua da.
- C. **Iturburua bisitatu nahi dutenei aholkuak emateko testua da.**
- D. Urederraren iturburuari buruzko egunkariko albistea da.

26. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Hausnartzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Normala</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

27. Lotu kopuruak eta kontzeptuak testuak azaltzen dituen ideiak osatzeko.

Kopurua	Kontzeptua
A. 2,5	1. Saldu ahal den sarrera kopurua.
B. 6,2	2. Igotzen eta jaisten diren metroak.
C. 90	3. Oinez egiten diren kilometroak.
D. 500	4. Ibilbidea betetzeko behar den denbora.

Kopurua	Kontzeptua
A. 2,5	4
B. 6,2	3
C. 90	2
D. 500	1

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	A-4 / B-3 / C-2 / D-1.

27. galderaren analisia	
Testu tipoa	<i>Etena, azalpena, web orrialdea.</i>
Ebaluatutako prozesua	<i>Interpretatzea</i>
Gehieneko puntuazioa	<i>1</i>
Zailtasun maila	<i>Zaila</i>
Galdera mota	<i>Itxia</i>

28. Adieraz ezazu X baten bidez ondoko baieztapen hauek egia (E) ala gezurra (G) diren:

	E	G
A. Sarrerak aldeaz aurretik bakarrik eros daitezke.	X	
B. Ibilbidea mugikortasun urriko bisitarientzat egokituta dago.		X
C. Eguneko 600 bisitari sar daitezke gehienez ere.		X
D. Iturburura heltzean, 6,2 kilometroko ibilbidea bete duzu.		X

Zuzenketarako irizpideak	
Puntuazioa	Erantzuna/k
0	Erantzun okerra edo osatu gabea.
1	A-E / B-G / C-G / D-G.

28. galderaren analisisia	
Testu tipoa	Etena, azalpena, web orrialdea.
Ebaluatutako prozesua	Interpretatzea
Gehienezko puntuazioa	1
Galderaren zailtasun maila	Normala
Galdera mota	Itxia

2. zatia - Idazmena

Orain zeu zara idazlea...

29. Txango asko egingo zenituen lagunekin edo senideekin. Konta ezazu zure txangorik gogokoena.



Hurrengo orrialdean honakoak dituzu eskura:

- Idazlana osatzen lagunduko dizuten galdera batzuk. Ideiak emateko bakarrik balio dute, ez dituzu erantzun behar.
- Zirriborrea egiteko lekua. Zirriborrea egitea derrigorrezkoa da.

1. Nora joan zinen? Nolakoa zen lekua?
2. Zer egin zenuen?
3. Norekin joan zinen? Norbait bota zenuen faltan? Zergatik?
4. Noren ideia izan zen txangoa egitea?
5. Zer gustatu zitzaizun gehien? Eta gutxien? Zergatik?
6. Zerez joan zinen? Autoz...
7. Ze urtaro zen? Ze eguraldi izan zenuen?
8. Zerbait hobetuko / aldatuko zenuke?

ZIRRIBORROA

IDATZI AURRETIK, ideiak antolatuko ditut:

1. pasartea	
2. pasartea	
3. pasartea	

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

**Ongi erabili letra larriak ongi eta zaindu
ortografia zaindu.**

Erabili puntuak, komak eta paragrafoak.

[illegible]

Amaiera

<i>Irakasle zuzentzaileak erabili eta bete beharreko puntuazio-taula</i>	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborrea eta plangintza (0 edo 1)	0 / 1
Txukuntasuna eta ortografia	
Istorioaren koherentzia eta egokitzapena	
Kohesioa	
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegi-aberastasuna	
29. itema – Osotara:	/13

Idazlana zuzentzeko irizpideak (Lehen Hezkuntzako 4. maila)

Zuzenketa lanean ondoko alderdietan eman behar da puntuazioa: egokitasuna eta aurkezpena, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna. Alderdi bakoitzari Orik 3ra bitarteko puntuazioa emanen zaio, ondoko irizpideen arabera:

	0 atala (0 puntu)	1. atala (1 puntu)	2. atala (2 puntu)	3. atala (3 puntu)
Plangintza	Ez du erabili ¹	Erabili du ¹		
Aurkezpena eta ortografia	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. Idazkiaren aurkezpena txarra da eta akats ortografiko asko ditu.	0 atalaren (puntuazio eskasa) eta 2. atalaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2. ataleko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Txukun idatzita dago</u> (ez dago zirrimarrarik...) ▪ <u>Letra</u> argia eta irakurterraza. ▪ <u>Marijak</u> ongi zehazturik daude. ▪ <u>Ortografia</u>: testu laburrak direnean (10-15 lerro), bost akats, gehienez (tz/ts/bx/z/s/x gaizki idatziz gero, horietako 5 akats bakartzat hartuko dira); zortzi akats, gehienez, testuak luzeagoak direnean. <u>Letra larriak zuzen erabili ditu.</u> <u>Haridura eta galdera ikurrak zuzen erabili ditu.</u>	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2. ataleko sei eskakizunak bikain bete ditu; ortografia akats gutxi egin du.
Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna	Oso eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. - Koherentziarik eta egiturarik gabeko kontakizuna egin du. - Jauziak eta justifikatu gabeko hutsuneak daude. - Ez du zeregina bete. - Ahozketasunaren berezko hizkuntza erabili du.	0 atalaren (puntuazio eskasa) eta 2. atalaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. - Ataza ulertu du baina laburregia da. - Ez da inkoherentea baina egitura ez da behar bezain argia. - Batzuetan justifikatu gabeko hutsuneak daude edo gai beraren gainean aritzen da. - Batzuetan erregistroa oso lagunartekoa da.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Egitura</u> argia: gertaerak kronologikoki kontatu ditu, ongi deskribatu ditu tokiak eta sentipenak (ipuinaren kasuan: aurkezpena, korapiloa eta bukaera bereizi ditu). ▪ <u>Bilakaera tematikoa</u>: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman, ezta justifikatu gabeko hutsunerik ere; kontakizuna erraz segitzen da. ▪ <u>Ahindutako zeregina bete du.</u> ▪ <u>Erregistro egokia erabili du.</u> ▪ <u>Perpausak</u>: perpausak ideia osoak adierazten dituzte.	LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2. ataleko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, idazlanak ezaugarri hauek ditu: argitasuna, hiztegi aberastasuna, testua arintzen duten hizkuntza baliabideak erabiltzea (<i>orduan</i> ; <i>geroago</i> ; <i>hala ere</i> , etab.); ez dago alferrikako errepikapenik; ez da erabat aurreikusteko modukoa), ez dago jauzirik edo hutsunerik.

¹ Idatzizko adierazpenaren kalitateari begira, funtsezkoa da ideiak planifikatzeko edo antolatzekeko prozeduraren bat erabiltzea. Garrantzitsuagoak iruditzen zaizkigu ikasleek prozedura hauek erabiltzea sustatzea eta ikasleei prozesu horretan alde aurretik ezarritako formatu bat emanez laguntzea, edukia ebaluatzea baino. "Zirriborroa" deitu diogu, ikasgeletan erabiltzen den termino bat dela uste dugulako.

Kohesioa	Ez dago erreferenteari eusteko eta ideiak konektatzeko mekanismorik. Hona hemen arazo horietako asko: - Ez dago argi zertaz ari den. - Errepikapen gehiegi. - Esaldi osatugabeak. - Ez dago paragraforik. - Ez du konektorerik erabili. - Gaizki erabili ditu puntuak.	Erreferenteari eusteko eta lotzeko mekanismo gutxi daude. - Behar ez diren errepikapenak daude. - Beharrezkoak izanik ere, ez du lokailurik erabili edo gaizki erabili ditu. - Ez dago mendeko perpaus bakar bat ere erabili. - Puntuak erabili baditu ere, ez du koma bakar bat ere erabili.	▪ <u>Sintaxia</u>: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak zuzenak dira. Ongi eraturiko mendeko bi perpaus erabili ditu, gutxienez. ▪ <u>Paragrafo kopurua</u>: hiru paragrafotan, gutxienez, banatu du testua paragrafoetan. ▪ <u>Joskera</u>: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude (lokailuak, menderagailuak, puntuazioa). ▪ <u>Erreferenteari eutsi dio</u>. ▪ <u>Ez dago alferrikako errepikaparik</u> ▪ <u>Puntuazioa</u>	LHko 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2. ataleko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Bestelako juntagailuak eta lokailuak erabili ditu, baita menderagailu bat(zuk) ere.
Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	Nabarmen eskasa Lehen Hezkuntzako 4. mailarako. - Perpausak ez dira zuzenak. - Gramatika akats dezente egin ditu. - Makulu-hitz asko erabili ditu : "gauza, egin, pasa, zera..."	0 atalaren (puntuazio eskasa) eta 2. atalaren (puntuazio egokia LHko 4. mailarako) arteko maila du. 2. ataleko eskakizunetako hiru bete ditu.	Lehen Hezkuntzako 4. mailarako maila egokia erakutsi du, honako eskakizun hauek bete dituelako: ▪ <u>Aditzak</u>: oro har, zuzen erabili ditu (denbora eta aspektua). ▪ <u>Komuntadura</u> akats batzuk, bakarrik egin ditu (ergatiboa, pluralgilea...). ▪ <u>Deklinabidea</u>: kasu markak ongi erabili ditu, oro har. ▪ <u>Lexiko</u> egokia erabili du (adjektiboak, adberbioak, hitz eratorriak, hitz elkartuak...). Pertsonen eta ekintzen buruzko informazio garrantzitsua ematen dute erabilitako hitzek.	Lehen Hezkuntzako 4. mailako curriculumeko ebaluazio irizpideen arabera, bikaintasuna erakutsi du. 2. ataleko eskakizun guztiak bikain bete ditu. Horretaz gainera, ez du gramatika akatsik egin, lexiko aberatsa baliatu du eta sintaxia menderatzen duela erakusten duten zenbait esamolde erabili ditu. Testua oso ongi idatzita dago, kontuan izanik Lehen Hezkuntzako 4. mailan gaudela.

Zuzenketa-irizpideak argitzeko, Ebaluazio Atalera jo daiteke. "Sanz, A. (2009). *Testu idatziak zuzentzeko orientabideak. Ebaluazio diagnostikoa. Lehen Hezkuntza*. Hezkuntza Ikuskaritzako koadernoak 8. zenbakia. Nafarroako Gobernua." hartu da erreferentzia gisa. Bertan azalpen osagarriak aurki daitezke, irakaskuntzan oro har jarduteko ere baliagarriak, baita zuzenketa adibideak ere. Esteka honetan deskarga daiteke:

https://www.educacion.navarra.es/eu/web/publicaciones/ultimas-publicaciones/-/asset_publisher/JONi5m8mCym2/content/orientaciones-para-la-correccion-de-textos-escritos-evaluacion-diagnostica-educacion-primaria

Jarraian, aurrez azaldutako irizpideen arabera zuzendutako zenbait testu jaso dira. Idazlan bakoitzari eman zaizkion puntuazioez gain, zuzenketen deskripzio zehatzak ere ikus daitezke. Bistan denez, ez da prozedura mekanikoa. Zuzentzaileak ariketa kasuz kasu baloratu du, adierazleen arabera. Kasu askotan nabarmena da adierazlea betetzen den ala ez. Beste batzuetan, ordea, ez da horren agerikoa, eta malgutasunez baloratu behar da nahitaez.

1. adibidea

ZIRRIBORROA

IDATZI AURRETIK, ideiak antolatuko ditut:

1. pasartea	Ni nire familiarekin baztango tirolinetara joan ginen. Lekua oso polita eta kolore asko rekin.
2. pasartea	Ni tirolina haxndienetik bota nintzen.
3. pasartea	Hurrengo egunean eskalataro eta bainatu egin ginen. Eta egun hori oso ongi pasa genuen denak.

Hizki argia eta ulergarria egin eta lerroei eutsi.

Letra larriak ongi erabili eta ortografia zaindu.

Ez ahaztu puntuak, komak eta paragrafoak erabiltzea.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Nire eskursioa

Ni nire familiarekin baztango tirolinetara joan ginen. Lekua oso polita eta kadore askorekin zegoen han.

Ni tirolina haxndienetik bota egin nintzen.

Hurrengo egunean eskalatzeraz joan ginen eta baita ere bainatu egin ginen. Eta egun hori oso ongi pasatu genuen eguna denak.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	2
Istorioaren koherentzia eta egokitasuna	1
Kohesioa	1
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	1
29. itema – Guztira	6

Zirriborrea eta plangintza (0 edo 1)

Ikasleak zirriborrea bete du eta ideiak antolatu ditu.

Alderdi honen balorazioa **1** puntukoa da.

Aurkezpena eta ortografia

- Txukuntasuna: “*haundienetik*” hitzean u-aren gainean x bat jarri du ikasleak balio ez duela adieraziz. Horrek txukuntasuna kentzen dio bere aurkezpenari.
- Letra: gokia.
- Marjinak: ongi errespetatu ditu marjinak bi aldeetan.
- Ortografia: ortografia akats bat dago “*baztango*” hitzean ez duelako hizki larriz idatzi. Bestela, ez dago ortografia akatsik.

Alderdi honen balorazioa: oro har, lau baldintzak bete ditu, beraz, alderdi honen balorazioa **2** puntukoa da.

Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna

- Egitura: kontaketa baten egitura jarraitu du.
- Erregistroa: erregistro egokia erabili du.
- Bilakaera tematikoa: perpaus batzuetatik bestera ez dago jauzirik.
- Perpausak: perpausak sinpleak badira ere, ideia osoak adierazten dituzte. “*Lekua oso polita eta kolore askorekin zegoen han*” perpausa sintaxi aldetik ongi badago ere, oso arraroa da euskaraz eta hobetu beharrekoa da. Azken esaldian ere “*Eta egun hori oso ongi pasa genuen eguna denak*”, “*eguna*” hitza errepikatu egiten du.

Alderdi honen balorazioa: eskakizunetako 4 bete ditu, beraz alderdi honen puntuazioa **1** puntukoa da.

Kohesioa

- Sintaxia: idazlanean erabilitako sintaxi egiturak sinpleak dira gauden mailarako. Azken esaldian “*Eta egun hori oso ongi pasa genuen eguna denak*” eguna hitza errepikatua dago eta sintaxi aldetik hobetu daitekeen esaldia da. Hortaz gain, “*Lekua oso polita eta kolore askorekin zegoen han*” esaldia ere hobetu beharrekoa da.
- Erreferenteari eusten dio: bai, kontaketa osoan zehar.
- Paragrafo kopurua: paragrafoak ezberdindu baditu ere, batean ideia bakarra sartu du eta motz gelditzen da.
- Puntuazioa: puntuak ongi jarri baditu ere, ez du komarik jarri.
- Joskera: paragrafo guztiak ez daude ongi josita (adibidez, “*ni tirolina haundienetik bota egin nintzen*” esaldia paragrafo berri batean idatzi du eta ez dago josita. Salto bat dagoela ematen du. Hirugarren paragrafoa ongi josi du “*hurrengo egunean*” denbora lokailua erabilia.

Alderdi honen balorazioa: **1** puntukoa da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Aditzak: aditzak eta aditz denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura: akatsik gabea.
- Deklinabidea: ez dago deklinabide akatsik.
- Lexikoa: hiztegi urria du ikasleak eta kasu batean, erderazko “*eskusioia*” hitza erabiltzen du adibidez.

Alderdi honen balorazioa: **1** puntukoa da.

2. adibidea

ZIRRIBORROA

IDATZI AURRETIK, ideiak antolatuko ditut:

1. pasartea NORAI) NOIE) NORBEKIN)	NORAI = KAMPALDI p. irata (Pasaiak) NOIE = pasaden urteko udan NORBEKIN = Lagun batzuekin celean, eidek, itria asiala)
2. pasartea ZOLAS BAT) ZOLAS BAT) ZOLAS BAT) NOLA) PASATU) ZENBAT) EGUN)	ZOLAS BAT = probak jolastu berritu... NOLA PASATU = oso ongi pasatu nuen PASATU = la gunekin eta jende berria ezagutu ZENBAT EGUN = sei egun egon ginen
3. pasartea BUELTA)	BUELTA = azkenengo eguna iritsi eta maletak egin.

Hizki argia eta ulergarria egin eta lerroei eutsi.

Letra larriak ongi erabili eta ortografia zaindu.

Ez ahaztu puntuak, komak eta paragrafoak erabiltzea.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Ni karpaldi piratararen jona nintzeneko egunak kontatuko
dizkizut. Lagun batekin jona nintzen, hasieran bakarrak
beraekin egoten nintzen. Pasaden urteko jona jona
nintzen bederata urteekin.

Sei egun jona ginen baina gauza asko
egin genituen sei egun oibetan. Alibidea: Probak
bainatu, ondarrak juri... Egun batean ari nintzen nire
jolaz batera jolatu genuen pasaiara. Jolasteko
pinza bat ematen ziguten talde bakoitzari
eta gu kaketak jona behar ginen
galbeteen gendeari eta aldateen egun pinte-
ren gaitetik. Oso ondo pasatu genuen.

Burua azkenengo eguna iritsi zen azkeneko.
Espatu eta maletak egin behar genituen,
geoa gogaltzera geitsi eta maletak
egintak utzi, behar genituen logelari,
gogaltzen ondoren maletak arto eta
bera geitsi genituen gendeari agur
esanda autobusean sartu eta etxera
itzuli ginen.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Zirriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	2
Istorioaren koherentzia eta egokitasuna	2
Kohesioa	2
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2
29. itema – Guztira	9

Zirriborrea eta plangintza (0 edo 1)

Ikasleak zirriborrea bete du eta ideiak antolatu ditu.

Alderdi honen balorazioa **1** puntukoa da.

Aurkezpena eta ortografia

- Txukuntasuna: txukuna eta ziriborrerik gabe.
- Letra: egokia.
- Marjinak: eskuineko marjinean hitz batzuk atera bazaizkio ere, oro har, ongi errespetatu ditu bi aldeetako marjinak.
- Ortografia: akats batzuk daude “oihetan”, “ondartzara”, “pasaian”, “bera” eta “artu” hitzetan.

Alderdi honen balorazioa: oro har, lau baldintzak bete ditu, beraz, alderdi honen balorazioa **2** puntukoa da.

Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna

- Egitura: gertaerak kronologikoki kontatu ditu.
- Bilakaera tematikoa: ez da perpaus batzuetatik besterako jauzirik antzeman eta kontakizuna erraz jarraitzen da.
- Perpausak: perpausak luzeak dira eta ideia osoak adierazten dituzte.
- Erregistroa: erregistroa egokia da.
- Agindutako zeregina bete du: bai.

Alderdi honen balorazioa: **2** puntukoa da.

Kohesioa

- Sintaxia: mendeko perpaus batean akatsa egin arren, maila ona duela erakutsi du.
- Paragrafo kopurua: hiru paragrafo ezberdindu ditu, zirriborroan agertzen zen bezala.
- Puntuazioa: puntuazio marka batzuk ez daude ongi: “Esnatu ea maletak egin behar genituen, gero gosaltzera jeitsi eta maletak eginak utzi behar genituen logelan, gosalduta ondoren maletak artu eta bera jeitsi genituen jendeari agur esanda autobusean sartu eta etxera itzuli ginen” esaldian puntuak falta dira eta koma batzuk puntuengatik ordezkatu behar dira.
- Joskera: paragrafoak zein perpausak ongi loturik daude. “hasieran” eta “azkenean” lokailuak erabili ditu ikasleak. Kontaketan ere “baina” eta “ondoren” lokailuak agertzen dira.
- Erreferenteari eusten dio: bai, kontaketa osoan zehar.
- Mendeko perpausak: “Egun batean oroitzen naiz jolas batera jolastu genuen Pasaian” esaldian, akatsa egin du ikasleak.

Alderdi honen balorazioa: **2** puntukoa da.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Aditzak: aditzak eta aditz denborak zuzen erabili ditu.
- Komunztadura: akatsik gabea.
- Deklinabidea: zuzen erabili du.
- Lexikoa: hiztegi zailegirik erabili ez badu ere, maila ona duela erakutsi du.

Alderdi honen balorazioa: oro har, sei baldintzak bete ditu akats gutxirekin. Beraz dagokion balorazioa **2** puntukoa da.

3. adibidea

ZIRRIBORROA

IDATZI AURRETIK, ideiak antolatuko ditut:

1. pasartea	Aquaramara joan ginen nire aita, ama, anaia eta ni.
2. pasartea	Oso ongi pasatu genuen, tximista guztetatik bota ginen eta han bazkaldu genuen.
3. pasartea	Gero etxera bueltatu eta pelikula bat ikusten afaldu genuen.

Hizki argia eta ulergarria egin eta lerroei eutsi.

Letra larriak ongi erabili eta ortografia zaindu.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Ez ahaztu puntuak, komak eta paragrafoak erabiltzea.

NIRE BIDAI KUTTUNA

Aquaramara joan ginen nire familia eta ni.
Aquaraman urretako txirrista asko dardde eta ia
txirrista gozitatik bota ginen. Gainera han bazkaldu
genuen, eta nire aita eta ama gurekin bota ziren
txirristetatik.

Super ongi pasatu genuen eta arratxaldeko
19:00ak arte han egon ginen. Gero gure etxera joan
eta pelikula bat ikusten genuen bitartean afaldu
genuen. Eta hori izan zen nire bidai gozukoaren
bat.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Ziriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	3
Istorioren koherentzia eta egokitasuna	1
Kohesioa	2
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	2

29. itema – Guztira

9

Ziriborroa eta plangintza (0 edo 1)

- Ikasleak ziriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu.

Alderdi honen balorazioa **1** puntukoa da.

Txukuntasuna eta ortografia

- Txukuntasuna: ongi.
- Letra: ongi idazten du. Letra ona du.
- Marjinak: eskuinera ezkerrera baino marjina handiagoa uzten du, alderantziz izan beharko lukeenean.
- Ortografia: arratsaldeko “s” idazten da.

Alderdi honen balorazioa: **3**

Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna

- Egitura: egitura egokia da. Testua laburra da. Sarrera falta zaio: “*egun batean*”, “*iaz*”, “*oporretan*”.
- Bilakaera tematikoa: testua motza da, bilakaerarik ez da ikusten.
- Perpausak: gehienetan perpaus bakunak erabiltzen ditu. Menpeko perpaus bakarra dago.
- Erregistroa: “*Oso ongi*” hobeto esanda dago eta ez “*super ongi*”.
- Agindutako zeregina bete du: ez dago osatua.

Alderdi honen balorazioa: **1**

Kohesioa

- Erreferenteari eusten dio: erreferentea mantentzen du, ez baitu gehiegi konplikatzen.
- Puntuazioa: gakoren bat falta da.
- Sintaxia: perpaus bakunak erabiltzen ditu gehienetan. “nire familia eta ni” erabili beharrean, hobeto dago “nire familia eta biok”. “Nire aita eta ama” esan beharrean, hobeto dago “nire gurasoak”. Izenburua “Nire bidaiarik kuttunena” izango litzateke eta ez “nire bidai kuttuna”.
- Joskera: sinplea da. Konplikaziorik gabekoa.
- Paragrafo kopurua: okerra.
- Menpeko perpausak: menpeko perpaus bakarra dago, “...pelikula bat ikusten genuen bitartean afaldu genuen”.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Aditzak: aditz konposatuak erabiltzen ditu eta gehienetan lehenaldian. Aditz trinko bakarra erabiltzen du. Aditz hau orainaldian dago eta lehenaldian egon beharko litzateke. Aditzak guztiak lehenaldian daude bat ezik, “daude”.
- Komunztadura: ongi dago.
- Deklinabidea: “guztitatik” idazten du eta guztietatik izan beharko litzateke. Bidaia idazten du ea bidaiarik izan beharko litzateke.
- Lexikoa: egokia.

Alderdi honen balorazioa: **2**

4.adibidea

ZIRRIBORROA

IDATZI AURRETIK, ideiak antolatuko ditut:

1. pasartea	Zaragozako abentura parkeraz, Gelakizeekin, Abenturekin Zehazitatekin igotzen Usanen zehazien gainean...
2. pasartea	Izugarri ondo pasatzen dugu, koronabirusa ez dago, atrakzioetan mantatzen gara
3. pasartea	Etxera itzuli eta motxila bat oparitzen digute.

Hizki argia eta ulergarria egin eta lerroei eutsi.

Letra larriak ongi erabili eta ortografia zaindu.

Ez ahaztu puntuak, komak eta paragrafoak erabiltzea.

ORAIN TESTUA IDATZIKO DUT:

Bizipen-kontakizuna

USUNGO ZALDIEN BASERRIAN

Behin, bazkaltzen nenguelarik, lagun batek bertu zidan eta Usunera joatea proposatu zidan. Usunen zaldien baserri bat dago eta zaldien mantatzeko haukera dago. Familiarekin joan ginen.

Usunera joan ginen eta onxe zuden zaldiek niri zaldiak i zugari gustatuko ditut eta segituan zaldien gainera igo nahi nuen. Mantatu baino ardu erdi behanaggy, rata txiki bat egitea proposatu ziguten eta oso gustura egin genuen denbora pixkat pastu zitzaigun eta okerrera mendik kanika joan beharria izan gurela zen! Azkenean iritsi egin ginen eta onxe zuden zaldiek gure zain. Niri Suke zaldia eran ziguten eta hantiera zen! Hasiaren behar pixkat izan nuen.

Azkenean trankila artu nion eta Suke oso ondo partatu zen. Berandu egin zenez nire lagunaren etxera lotura joatea utzi zidaten! Oso-oso ongi pastu genuen, eta nire lagunak dituen jaskifur gartiekin jolastu genuen.

**Zuzentzaileak edo irakasleak
bete beharreko puntuazio taula**

	Puntuazioa 0, 1, 2 edo 3
Ziriborroa eta plangintza (0 edo 1)	1
Txukuntasuna eta ortografia	2
Istorioaren koherentzia eta egokitasuna	3
Kohesioa	3
Gramatika-zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna	3
29. itema – Guztira	12

Ziriborroa eta plangintza (0 edo 1)

Ikasleak ziriborroa bete du eta ideiak antolatu ditu.

Alderdi honen balorazioa **1** puntukoa da.

Aurkezpena eta ortografia

- Txukuntasuna: itxura ona eta garbia da.
- Letra: letra argia, erregularra eta garbia da, ulertteraza.
- Marjinak: ongi zehaztu ditu marjinak.
- Ortografia: akatsen bat badago ere, oro har ortografia zuzena da. Letra larriak ongi erabili ditu. Harridura ikurrak ondo erabili ditu.

Alderdi honen balorazioa: lau baldintzetatik hiru bete ditu. Beraz, **2** puntuko puntuazioa dagokio.

Kontakizunaren koherentzia eta egokitasuna

- Egitura: modu argian eta kronologikoki ongi antolatuan adierazi ditu kontakizuna osatzen duten ekintzak.
- Erregistroa: idatzi mota kontuan hartuta, erregistro egokia erabili du.
- Bilakaera tematikoa: bilakaera tematikoa hautematen da.
- Perpausak: perpausak ideia osoak adierazten dituzte.
- Agingutako zeregina bete du: eskatutako atazari heldu dio (xedea eta luzera).

Alderdi honen balorazioa: bost baldintzetatik bostak bete ditu. Beraz, **3** puntuko puntuazioa dagokio.

Kohesioa

- Sintaxia: aberats samarra da, mendeko perpaus eta lokailu batzuk zuzen erabili dituelako.
- Paragrafo kopurua: testua paragrafotan antolatuta dago eta kontakizunaren zatien arteko lotura ongi antzematen da.
- Puntuazioa: oro har, ongi erabili ditu puntuazio ikurrak.
- Joskera: testu-antolatzaile batzuk erabili ditu, modu egokian, perpausak eta paragrafoak lotzeko eta kontakizunari koherentzia emateko.
- Erreferenteari eusten dio: ideiak antolatzeko orduan ongi eutsi dio aipatutako ekintzen arteko hurrenkerari.

Alderdi honen balorazioa: sei baldintzetatik seiak bete ditu. Beraz, **3** puntuko puntuazioa dagokio.

Zuzentasuna eta hiztegiaren aberastasuna

- Aditzak: aditz aspektua batzuetan oker erabili badu ere, oro har, ongi erabili ditu aditz-aldiak.
- Komunztadura: akats bat egin badu ere, oro har zuzena da.
- Deklinabidea: oro har zuzen erabili du.
- Lexikoa: erdarakadaren bat egin badu ere, lexiko egokia erabili du.

Alderdi honen balorazioa: Lau baldintzetatik laurak bete ditu. Beraz, **3** puntuko puntuazioa dagokio.